

JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN FUNDAZIOA

URTARRILA-ABENDUA 2016

1.- 25. urteurrena

2016ko abenduaren 21ean Jose Miguel Barandiaran hil zenetik 25 urte bete dira eta 2016ko otsailaz geroztik efemeridearen harira Fundazioak egitarau bat antolatzen arituda:

a.- Mahai-inguruak.

Urriaren 20an hasi eta abenduaren 15a bitartean bost mahai-inguru egin dira bost hiriburuetan, eta denetan, hizlari berdinek hartu dute parte: Argitxu Camus (*Barandiaran eta Europa*), Gaspar Martinez (*Barandiaran: zientzia eta sinesmena*), Ixone Fernandez de Labastida (*Barandiaran eta euskal gizartea*) eta Asier Barandiaran (*Barandiaranen baloreak egungo gizartean*).



- 1.- 2016.10.20. Gasteiz. Vital Kutxa Aretoa (Dendaraba).
- 2.- 2016.11.03. Bilbo. Euskal Museoa
- 3.- 2016.11.17. Donostia. Koldo Mitxelena Kulturunea. Kasu honetan, ohiko hizlarietz gainera, Renoko William A. Douglass Euskal Ikerketen Zentroko

zuzendari Xabier Irujok Skype bidez hartu zuen parte mahai-inguruan, *Barandiaran eta erbestea* gaia landu zuen.

4.- 2016.12.01. Iruñea. Nafarroako Errege Artxibo Orokorra.

5.- 2016.12.15. Baiona. Euskal Museoa.

b.- Itxiera ekitaldia

Ataungo Sara Etxean egin zen 25. urteurreneko itxiera ekitaldia abenduaren 21an, Barandiaran hil zen egunean. EAEko lehendakari Iñigo Urkullu eta Nafarroako lehendakari Uxue Barkosek hartu zuten hitza, besteen artean. Horrez gainera, gonbidatuak izan ziren Jose Miguel Barandiaranek harremana izan zuen erakundeetako ordezkariak zein kirol edota kultura arloko pertsonaiak, besteen artean.



2.- Eusko Folklorearen Urtekaria 50. Zenbakia kalean

Arabako Foru Aldundiak duen inprentaren bidez argitaratu zen Eusko Folklorearen Urtekariaren 50. zenbakia 2016ko martxoan. Bertan honako lanak jasotzen dira: *Estudio etnográfico de Obanos (Navarra)*. *Agricultura* (M^a Amor Beguiristain); *Olivos y aceitunas, trujales y aceites: El cultivo del olivo y la elaboración del aceite en Rioja Alavesa* (José Ángel Chasco); *Sistema tradicional de medidas utilizado en el Valle de Carranza (Bizkaia)* (Luis Manuel Peña); *Ahotza, forgeron en Labourd (Iparralde)* (Michel Duvert); *Refranes*

y creencias de Sara (Lapurdi) recogidas por Augustin Etcheberry (1853-1900) (Jabier Kalzakorta); *Casa y familia en Vasconia. Séptimo tomo del Atlas Etnográfico* (Segundo Oar-Arteta); *In Memoriam. Antxon Aguirre Sorondo (1946-2014)* (Koldo Lizarralde); *Por quién lloran las campanas* (Seminario Alavés de Etnografía).

Gainera, agerkariaren sorreratik gaur egunera arteko artikuluguztien indizeak jasotzen dituen lana ere egin dute Ander Manterolak eta Gurutzi Arregik EFUren 50. zenbaki honetarako: *Anuario de Eusko Folklore. Tomos I-L (1921-2014). Índices de Autores y Materias.*

3.- Barandiaran Beka 2016

2011tik deialdirik egin gabe egon ostean, 2016an berreskuratu egin da Barandiaran Beka. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean dirulaguntza zuzena eskatu da eta 12.000 euroko laguntza eskuratu du Fundazioak. Deialdia maiatzaren 30ean egin zen eta urriaren 31ra arteko epea izan dute eskatzaileek deialdira aurkezteko. Guztira 11 lan aurkeztu dira, taldetan zein banaka, euskaraz zein gaztelaniaz eta askotariko gaiak jorratuz.

Etnologiari eskainita dago beka eta epaimahaiak abenduaren 31 baino lehen emango du erabakiaren berri.

4.- Katalogazioa eta digitalizazioa

Fundazioko patronatuko zenbait kidek Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendari Imanol Agoterekin bilera egin zuten 2015eko apirilean, eta hainbat proiektu aurkeztu zizkieten, tartean Barandiaranen artxiboaren egoeraren berri eman zitzaion. Haren bitartekaritzari esker abuztuaren 3an bilera egin zen Euskadiko Artxibo Historikoko zuzendari Borja Aginagalderekin. Hala, Jose Migel Barandiaranen artxiboa digitalizatzeko kontratu-txiki bat egitea aipatu zuen, bi urtetarako. Hori horrela, Barandiaranen lan originalak digitalizatu dira 2015 eta 2016an zehar.

Eusko Ikaskuntzaren baitako Euskomedia Fundazioarekin egin du kontratua Euskadiko Artxibo Historikoak, hauek izan baitira orain arte artxiboaren katalogazio eta digitalizazio lanak egin dituztenak.

2015ean Jose Miguel Barandiaranen artxibo profesionalaren baitako dokumentuak digitalizatu ziren, arkeologia eta historiaurreko gaiak jasotzen dituzten dokumentuak hain zuzen (947 erregistro katalogatuz eta 31.541 irudi digitalizatuz).

2016an honako lana egin da, artxibo pertsonala eta korrespondentzia arloko dokumentuak ardatz hartuta 2523 erregistro katalogatu dira eta 19.400 irudi digitalizatu dira.

Hala, 2010ean hasitako bideari beste kapitulu bat gehitzen zaio. Urte hartan fondoaren katalogazioa egin zen (2.286 erregistro: 20.000 dokumentu eta 95.000 orrialde baino gehiago). 2013-2014ean katalogazio eta digitalizazio lanak egin ziren: etnologia eta antropologia ardatz hartuta.

Guztira: 4.690 erregistro katalogatu dira eta 62.914 orrialde bainoo gehiago digitalizatu. Esan daiteke, beraz, Barandiaranen fondoaren gai nagusi eta garrantzitsuenak katalogatu eta digitalizatu direla, arlo profesionala eta pertsonala kontuan hartuz.

5.- Eusko Folklorearen Urtekaria: 51 zenbakiari begira

2015eko urriko patronatu bileran izendatu zen Abel Ariznabarreta Eusko Folklorearen urtekariaren zuzendari moduan eta ordutik hainbat urrats eman dira agerkariari eman nahi zaion noranzko berrian. Hala, batzorde zientifikoa berritu du Ariznabarretak: berarekin batera Patxi Juaristi eta Anuntxi Arana daude taldean.

2016ko martxoko patronatu bileran Zuriñek azaldu zuen bezala, zuzendaritza berriaren asmoa agerkaria atal ezberdinetan banatzea da: batetik, gai zehatz baten inguruan hainbat lan argitaratzea. 51. Zenbakirako gaia “Euskal Kultura eta kulturgintza” izatea zehaztu dute eta horren inguruko lan desberdinak eskatu; dagoeneko lotuta dituztenak, gainera.

Bestetik, EFUn orain arte landu izan diren gaiei tokia egiten jarraitzea funtsezkotzat ikusi du batzorde zientifikoak, eta Zuriñe Velez de Mendizabal (Fundazioko idazkari teknikoa) orain arteko kolaboratzaileekin jarri da harremanetan: EFUn parte hartzeko gonbita egin die, baiezkoen bat ere jaso du. Horiek agerkariaren bigarren atal batetan joango dira.

Hirugarrenik, elkarrizketa, liburuen inguruko aipamenak-eta beste joango lirateke hirugarren atalean.

2017ko martxora bitarteko epea dute egileek euren lanak entregatzeko. Argitaratze data finkatzeke dago.

6.- JMBarandiaranen egunerokoak EHUn

Alvaro Arrizabalaga EHUKo Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saileko irakasleak bilera eskaera egin zion Jose Miguel de Barandiaran Fundazioari. Maiatzaren 17an egin zen bilera Gasteizko bulegoan.

Bertan Arrizabalagaren eskaria jaso zuen Fundazioak: bere ikasleekin praktika batzuk egin nahi ditu 2016-2017 ikasturtean, horretarako Jose Miguel de Barandiaranen egunerokoak baliatuz. Ikasle bakoitzari egunerokoko orri bat eman eta transkribapena egin beharko dute. Oraindik publikatu gabe dagoen materiala izango da –eta 40 orri inguru eskatu dizkio Fundazioari, hain zuzen, 1954-1955-1956 urteetakoak izatea eta indusketen gaineko informazioa izatea eskatu du. Baiezko eman eta irailaren 30ean

bidali zitzaion materiala. Fundazioan transkribatuta daude orrialde horiek, baina erabaki zen Barandiaran ikasleei gerturatzeko beste modu bat izan zitekeela.

7- Bilerak

a.- 2016ko martxoaren 16an Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak urteko lehen patronatu bilera egin zuen Nafarroako Artxibo Historikoan. Honakoak izan ziren bilerara bertaratutakoak: Fernando Perez jn. (Nafarroako Kultura Zuzendaria), Asier Rodriguez jn. (Ataungo Alkatea), José Manuel Bujanda jn. (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila Kabinetearen Zuzendaria), Gonzalo Olabarria jn. (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendaria), Andoni Iturbe jn. (Bizkaiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua), María José Telleria (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendaria), Karmele Aierbe and. (Ataungo Kultura zinegotzia), Josemari Velez de Mendizabal jn. (Eusko Ikaskuntza. Fundazioko Lehendakaria), Arantza Cuesta (Eusko Ikaskuntza. Fundazioko idazkaria), Susana Irigaray (Eusko Ikaskuntza), Jexux Aizpurua (Eusko Ikaskuntza). Haiekin batera, Zuriñe Velez de Mendizabal and. ere egon zen, Fundazioaren idazkari teknikoa.

b.- Bestalde, Fundazioak urtean zehar hainbat bilera egin ditu gai ezberdinak tratatzeko. Esaterako, Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko lehendakariak eta idazkari teknikoak Eusko Folklorearen Urtekaria dela-eta Abel Ariznabarreta aldizkariko zuzendariarekin 2016ko urtarrilaren 12an eta irailaren 14an bilera izan zuten. Aurrenekoan zalantza batzuei erantzun zitzaien, eta bigarrenean, dagoeneko 51. zenbakia prestatzen ari direla eta emandako urratsez eta lortutako erantzuenaz hitz egin zuen Ariznabarretak.

c.- Horrez gain, aipatu bezala, Alvaro Arrizabalagak EHUKo bere ikasleekin Barandiaranen figura landu nahi duela-eta, bilera eskaera egin zuen Fundazioan eta maiatzaren 17an elkartu ziren Fundazioko presidentea, idazkari teknikoa eta Arrizabalaga bera.

d.- Bestalde, Eusko Ikaskuntzak ematen duen Manuel Lekuona Sarian epaimahaikide moduan egoteko gonbitea egin zion erakundeak beste urte batez Fundazioari. Baiezkoa eman eta Josemari Velez de Mendizabalek hartu du egiteko horren ardura. Bilera urriaren 5ean egin zuten, Donostiako Miramar jauregian, Eusko Ikaskuntzaren bulegoetan.

e.- Amaitzeko, urriaren 27an Jose Miguel de Barandiaran Fundazioaren Patronatu bilera egin zen Ataunen, Sara Etxean. Bertaratuak honakoak izan ziren: Igone Martinez de Luna (Arabako Kultura Foru Diputatua), Fernando Perez (Nafarroako Kultura Zuzendaria), Jose Manuel Bujanda (Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria), Asier Rodriguez (Ataungo alkatea), Karmele Aierbe (Ataungo kultura zinegotzia), Josemari Velez de Mendizabal (Fundazioko presidentea), Arantza Cuesta (Idazkaria), Jexux Aizpurua. Fundazioko idazkari tekniko Zuriñe Velez de Mendizabal ere bileran izan zen.